

# Ikt gaitasunak kurrikuluan

Mintegietako diagnostikoa 2010-11





**1.-** Oinarrizko prestazioak, ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea.

#### ONDORIO OROKORRAK

Orokorrean gaitasun hauen lanketa informatikakoen edo teknologikoen lana dela uste da (6). Mintegi gehienetan sarea eta artxibo gordeketa burutzen da, baina ez espreski landuta (8). Lehen eta bigarren mailan ikasgai guztietan irakatsi beharko genieke, informatika gela erabiltzen dugunean. Gizarte mintegian baliabide gehiagoren eskaera egiten da: eskanerra, argazki kamera info geletan.

### ONDO

- Orokorrean erabili egiten dira.
- Info-teknokoen lantzat hartzen da.

### HOBETZEKO

- Ez zaie espreski erakusten.
- Baliabide gehiago info geletan:  
eskanerra, argazki kamera...

#### AURRERA BEGIRA

- 1.- Informatikakoek eta teknologikoek beren kurrikuluan sartuko dute gai honen lanketa.**
- 2.-Informatika geletan baliabide gehiagoren eskaera egiten da: eskanerra, argazki kamera...**
- 3.-Beste mintegietan ere, ahal den neurrian, baliabide hauen ezagutza azalduko da.**



## 2.- Ordenagailu sareak eta eguneroko beste gailu elektronikoak zein informatikoak erabiltzea, segurtasuna erakutsita.

### ONDORIO OROKORRAK

Orokorrean gaitasun hauen lanketa informatikakoen edo teknologiakoen lana dela uste da. Mintegi gehienetan gailuak egoera onean mantentzearen beharraz jabetuta daude; eta energia eta papera aurreztearen beharraz kontzientziatuta daude. Agenda 21aren barnean papera bi aldeetatik erabiltzea komenigarri ikusten da. Antivirus-ak eta programak instalatze-desinstalatze lanak informatikakoen lantzat hartzen dira. Info-geletan sarez kanpo legokeen ordenagailua, honelako lanak egiteko izatea, komeniko litzateke. Hala ere, lan hauek informatika orduetan lantzekoak direla hobesten da. Edozein matxuraren aurrean, horretarako espreski sortutako formularioa erabili, mantenu arduradunak berehala konpon dezan.

### ONDO

-Kontzientzia ekologikoa badago.  
-Matxuren berri emateko sistema badugu.

### HOBETZEKO

-Info geletan ordenagailu piloto bat izatea eta bertan info-teknokoek instalazio-desinstalazio eta antibirusak jartzen irakastea.

### AURRERA BEGIRA

- 1.- Inprimagailuetan papera bi aldeetatik erabiliko da.
- 2.- Matxurak daudenean berehala horretarako espreski daukagun formularioa erabiliko da, berehala konpondu dezaten.
- 3.- Informatika geletan sarez kanpo legokeen ordenagailua komeni da ikasleek software, hardware eta antibirusak instalatzen ikas dezaten.



### 3.-Programak eta aplikazioak erabiltzea.

#### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi gehienetan erabiltzen dira, grafikoak, testuak, audioak eta bideoak. Batez ere, erabilpen mailan eta ez trebatze modura, trebatzea informatikakoen lantzat hartzen delarik. Oso mintegi gutxi erabiltzen dute ikasleekin programen laguntza baliabidea. Sistema eragilearen erabilgarritasunak oso modu soltean erabiltzen dira mintegi gehienetan, baina sistematikoki eta espreski erabilgarritasunetan trebatzen informatikako saioretan aritzen dira. Mintegi batzuen ustez ikastetxeak programa legalak edo software librekoak erabili beharko lituzke eta inola ez kopia ilegalak.

#### ONDO

-Mintegi gehienetan erabiltzen dira, grafikoak, testuak, audioak eta bideoak, baina suposatuz badakitela erabiltzen.

#### HOBETZEKO

-Laguntzak erabiltzen irakatsi. Info-teknokoek espreski irakatsi balibide hauen erabilpen zuzena.

-Software libreruntz jo beharko genuke, baina lehenengo Hezkuntza Departamentuak.

#### AURRERA BEGIRA

- 1.- Informatikakoek eta teknologikoek beren kurrikuluan sartuko dute gai honen lanketa.**
- 2.- Hezkuntza Departamentuari eskatu ordenagailuak aldatzen direnean, software librea ekartzea. Momentuz, Open Office eta Mozilla Firefox erabiltzen hasi.**
- 3.-Audio eta bideoen erabilpena areagotu, behin irakatsi ondoren.**



## 4.- Mekanografia

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi bakar batek aitortzen du mekanografiaren erabilpena. Mintegi askok egokitzat jotzen dute jakitea, baina informatika eta teknologiakoen lantzat jotzen dute. Mintegiren batek zalantzan jartzen du ikastetxearen lana ote den.

### ONDO

-Egoki jotzen da

### HOBETZEKO

-Info-tekno  
kurrikuluan sartu.

### AURRERA BEGIRA

- 1.- Informatikakoek eta teknologiakoek beren kurrikuluan sartuko dute gai honen lanketa.**
- 2.-Beste mintegietan ere, ahal den neurrian, baliabide hauen ezagutza eta erabilpena baloratuko da.**



## 5.-Ergonomia eta segurtasuna.

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi guztiek bat egiten dute beharrezkoa dela ikasleak gai honetan ohartaraztea. Erdiek lan hau egiten dute, baina gehiago ere lan litekeela aitortzen dute. Bestalde, denek argi dute zuzendaritzari eta Hezkuntza Departamentuari dagokiola altzari egokiak eta tresneria egokia eskaintzea. Askotan monitoreak ez daude oso postura egokian.

### ONDO

-Kontzientzia badago eta batzuetan ikasleei zerbait esaten zaie.

### HOBETZEKO

-Zuzendaritzari eta Hezkuntza Departamentuari dagokio altzari egokiak eta tresneria egokia eskaintzea.

-Tutorian edo orientazioan gaitzat sartu.

### AURRERA BEGIRA

- 1.- Ikastetxeko Segurtasun eta Higiene arduraduna kezkatuko da, IKT altzariak eta tresneria ergonomikoak izan daitezen.**
- 2.-Tutoretzan edo orientazioan lantzea komeni da.**
- 3.- Irakasle guztion ardura da, klaseetan somatzen ditugun ohitura okerrak zuzentzea.**



6.-Hainbat material interaktibo modu autonomoan erabiltzea.

#### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi guztiek erabiltzen dituzte interneteko helbideak. Egokia ikusten da ikastetxeko web-orrian helbide biltegia izatea. Ikasleak interneten dagoen informazio guztia ez dela fidagarria ohartarazi behar dira. Interneteko informazioaz gain liburutegikoa ere erabili beharko litzateke. Moodle egokitza jotzen da ikasleentzako helbide egokien bildumak egiteko.

### ONDO

- Mintegi guztietan internet helbideak erabiltzen dira.
- Moodle egoki jotzen da lan honetarako.
- Web-ean baliabide errepositorioa badugu.

### HOBETZEKO

- Moodle gehiago erabili.
- Web-orriko baliabide errepositorioa bete.
- Liburutegiak ere erabili.

#### AURRERA BEGIRA

**1.-Ikastetxeko web orrian honetarako espreski sortuta dagoen IKT baliabide digitalak atala denon artean ahalik eta hobekien bete.**

**2.-Moodle erabiltzen dutenek bertan jarri ikasleen eskura gaiari lotutako baliabide digitalak.**



## 7.-Teleprestakuntzako inguruneetan mugitzea.

### ONDORIO OROKORRAK

Orokorrean Moodleren aldeko jarrera dago. Batzuk uste dute egokiagoa dela soilik Batxilergoan erabiltzea. Mintegi batzuek Moodle menperatzeko ikastaroak eskatzen dituzte; beste batzuek, ordea, ez dute "Teleprestakuntza" kontzeptua ulertu. Alde handiak daude mintegien artean eta mintegi bereko kideen artean. Ahalegin berezi egin beharko genuke ikasleen arteko begiruneari dagokionean, foroetan eta abar besteen ekarpenak errespetatu ditzaten.

### ONDO

-Orokorrean Moodleren aldeko jarrera dago.

### HOBETZEKO

-Alde handiak daude mintegien artean eta mintegi bereko kideen artean.

-Batzuek Moodle ikastaroak eskatzen dituzte.


-Foroetako ekarpenen jarraipena egin behar da.

### AURRERA BEGIRA

**1.-Moodle-en erabilpenari dagokionean alde handia dagoenez, ikastetxeak ikastaro gehiago antolatuko ditu irakasle guztiek gaia mendera dezaten.**

**2.- Ikasleek parte hartzen duten foro eta eztabaidetan ekarpenen jarraipena egingo da begirunea denaren gaintik ager dadin.**





## 8.-Jarrera irekia, arduratsua eta kritikoa agertu.

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi guztiak ohartzen dira jarrera kritikoak duen garrantziaz (16). Hala ere, ikastaroak, hitzaldiak eta kontzientziatze ekitaldiak burutzea proposatzen da. Bestalde, tutoretzan edo orientazioan edo HAEE edo Etikan derrigorrez landu beharreko gaitzat jotzen dira. Hezkuntza Departamentuak badu "kontuz datos" programa. Ikastetxeak software librearen aldeko apostua egin beharko luke eta jabegoa errespetatzen duten programak erabili.

### ONDO

-Hezkuntza

Departamentuak badu "kontuz datos" programa badu.

-Mintegietan kontzientzia badago.

### HOBETZEKO

-Ikastetxeak software librearen aldeko apostua egin beharko luke eta jabegoa errespetatzen duten programak erabili.

-Hitzaldiak eta kontzientziatze ekitaldiak burutzea proposatzen da.

-Bestalde, tutoretzan edo orientazioan edo HAEE edo Etikan derrigorrez landu beharreko gaitzat jotzen dira

### AURRERA BEGIRA

**1.-Hezkuntza Departamentuak eskaintzen digun "kontuz datos" programa berariazkoa ikasleak kontzientziatzeko erabili, Etikan, HAEE-n, Orientazioan edo Tutoretzan.**

**2.- Tutoretzan edo orientazioan gai honen inguruko lanketa egitea komeni da.**

**3.- Ikastetxeak gurasoentzako nahiz ikasleentzako hitzaldiak antolatu.**



## 9.- Interneten batera egin beharreko lanak.

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi batzuek adierazten dute ikasleekin hasi baino lehen formakuntza behar dutela irakasleek (2). Batzuek moodle, google aplikazioak eta wikiak erabiltzen dituzte, baina oso gutxi. Postaren erabilpena ohikoagoa da. Batxilergoan gehiago erabiltzen dute, batez ere Moodle. Zenbait mintegitan ez da talde lanik egiten. Hiru mintegitatik informatika eta teknologian lantzea proposatzen da: postaren ziurtasuna, talde laneko aplikazioak ( wiki, moodle, blogak, irudien kudeaketa tresnak...).

### ONDO

-Batzuek moodle, google aplikazioak eta wikiak erabiltzen dituzte, baina oso gutxi.

### HOBETZEKO

-Formakuntza beharra ikusten da.  
-Zenbait mintegitan ez da talde lanik egiten.  
-Teknologia-info kurrikuluetan sartu.

### AURRERA BEGIRA

**1.-Interneten batera lan egiteko tresnen inguruko ikastaroak nahi ditu irakasleriak: google aplikazioak, moodle, wikiak...**

**2.- Aplikazio hauen erabilpen pedagogiko egokia lortzeko, formakuntza saioak behar dira, batez ere, irakaskuntza kolaboratiboari dagokionean.**



10.- Inguru hipertestualak eta ikus-entzunezko materialak.



#### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi batzuen ustez publizitatea eta horrelakoak hizkuntza mintegietan landu beharko lirateke edo tutoretzan (4). Jarrera kritikoa ia denetan lantzen da (11). Ingurune hipertestualak erabiltzen, batzuen ustez informatika ikasgaiari landu beharko lukete.

### ONDO

-Jarrera kritikoa ia denetan lantzen da (11).

### HOBETZEKO

-Ingurune hipertestualak erabiltzen, batzuen ustez informatika ikasgaiari landu beharko lukete, baina egokiagoa litzateke guztietan lantzea.

#### AURRERA BEGIRA

**1.- Informatikakoek eta teknologikoek beren kurrikuluan sartuko dute ingurune hipertestualen lanketa.**

**2.-Beste mintegietan ere, ahal den neurrian, baliabide hauen erabilpena bultzatuko da.**

**3.- Jarrera kritikoa mintegi guztietan landuko da, batez ere, publizitatea eta informazioaren arteko aldea.**



11.- Informazioa lortzea, aukeratzea, antolatzea eta gordetzea (testua, irudia, soinua, bideoa...).

#### ONDORIO OROKORRAK

Informatikakoek lantzen omen dute eta zenbait mintegik bideoak eta soinua nola erabili beraien (informatikakoen) lana dela uste dute. Beste mintegietan puntualki, lanak egiterakoan, erabiltzen dute, baina ez dute sistematikoki lantzen (7). Datu baseak ez ditu ia inork lantzen. Jabetza intelektualaren errespetatzea ongi ikusten da, baina ez da inola espreki lantzen. Informazioa planifikatu, jaso eta tratatu ia mintegi guztiek (12) nahiz mintegi batek planifikazioa eta lan egiteko modua hobetu beharra ikusten duen.

### ONDO

- Informatikakoek lantzen omen dute.
- Beste mintegietan puntualki, lanak egiterakoan, erabiltzen dute, baina ez dute sistematikoki lantzen (7).

### HOBETZEKO

- Datu baseak ez ditu ia inork lantzen.
- Jabetza intelektualaren errespetatzea ongi ikusten da, baina ez da inola ere espreki lantzen.
- Lana planifikatzen irakatsi behar zaie.

#### AURRERA BEGIRA

- 1.-Jabetza intelektualaren: ikastetxeak programa legalak edo software librearen erabiliko du.**
- 2.-Testua eta irudiaz gain bideoen eta soinuen lanketa areagotuko da.**
- 3.-Datu-basea informatika eta teknologoen kurrikuluan sartuko da.**
- 4.-Ez da nahikoa ikasleei lanak agintzea, planifikatzen irakatsi behar zaie.**



## 12.-Formatu desberdinetan dagoen informazioa elaboratzea, gero besteei komunikatzeko.

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi gehienetan testua eta irudia asko lantzen dira, baina soinua eta irudiak sortzea ez. Excel edo kalkulu orriak zenbait mintegitan erabiltzen dira (3) eta datu baseak ia inon ez. Blogak, wikiak eta horrelakoak soilik dibertsifikazioan. Gai hauen formakuntza informatikakoen lantzat jotzen dute 2 mintegitan. Gehienek lortu nahi den helburuarentzat egokiena den programa erabiltzen dute (11). Estetikak komunikazioan duen garrantzia lantzen da (12). IKT-ak komunikazioa errazteko erabiltzen dira (11).

### ONDO

- Irudiak eta testuak asko erabiltzen dira.
- Excel zerbait erabiltzen da.
- Helburuaren arabera program desberdinak erabiltzen dira.
- Estetika lantzen da.
- Ikt-ak komunikazioa errazteko erabiltzen dira.

### HOBETZEKO

- Soinuak eta bideoak gutxi erabiltzen dira.
- Acces ez da erabiltzen.
- Blogak, wikiak ez dira erabiltzen.

### AURRERA BEGIRA

- 1.-Testua eta irudiaz gain bideoen eta soinuen lanketa areagotuko da.**
- 3.-Kalkulu orriak (Excel, Calc...) informatika eta teknologoen kurrikuluan sartuko dira.**
- 4.-Blogak, wikiak gehiago erabili behar dira.**



13.- Posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak... bidaltzea eta jasotzea ikasgelako jardueren testuinguruan.

#### ONDORIO OROKORRAK

Mintegien erdiek aitortzen dute Moodle ingurunean posta eta foroak erabiltzen dituztela. Besteei egokia iruditzen zaie, baina ez dute erabiltzen. Hizkuntza zuzentasuna 8 mintegietan lantzen dela adierazten da.

### ONDO

-Mintegien erdiek aitortzen dute Moodle ingurunean posta eta foroak erabiltzen dituztela.

### HOBETZEKO

-Mintegi askori egokia iruditzen zaie, baina ez dute erabiltzen.

#### AURRERA BEGIRA

**1.- Informatikakoek eta teknologikoek beren kurrikuluan sartuko dute posta eta komunikatzeko beste lanabesen lanketa.**

**2.-Beste mintegietan ere, ahal den neurrian, baliabide hauen erabilpena bultzatuko da.**



14.-Posta-kudeatzaileak, web orria, mezuak... bidaltzea eta jasotzea erabilera kritiko eta seguruan.

#### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi gehienek ez dute inola ere lantzen, baina egokia iruditzen zaie tutoretzan edo orientazioan gai hauek lantzea (2). Beste batzuek informatikan edo teknologian ikasi beharrekotzat jotzen dute (4). Askok ez dute ezer erantzun.

### ONDO

-Egokia ikusten da lantzea.

### HOBETZEKO

-Tutoretzan edo Orientazioan landu beharko litzateke. Edo informatika eta teknologian.

#### AURRERA BEGIRA

**1.-Segurtasunari dagokion kezka agertzea eta ikasleen artean eztabaida sortzea Tutoretzari, Orientazioari eta orokorrean ikasgai guztiei dagokie.**

**2.-Antibirusen, su-ebakien eta aparteko segurtasun babesleen erabilpen teknikoa Informatika eta Teknologia kurrikuluetan sartuko dira.**



## 15.-Proiektu "kolaboratzaileak" gauzatzerakoan, taldean lan egiteko erremintak erabiltzea.

### ONDORIO OROKORRAK

Mintegi gehienek ez dute lan kolaboratzaileak lantzen edo ez dute galdera ulertu. Beste batek irakasleen prestakuntza hobetu behar dela adierazten du. Askok ez dute ezer erantzun. Erreminta hauek ingeles trukaketetan erabilgarriak liratekeela proposatzen da.

### ONDO

### HOBETZEKO

-Mintegi gehienetan ez da lantzen.

-Prestakuntza beharra ikusten da.

-Trukaketetan erabil daitezke.

-Mintegi batzuetan ez dute "kolaboratzaile" kontzeptua ulertu.

### AURRERA BEGIRA

**1.-Proiektu kolaboratzaile gehiago landu behar dira eta horretarako formakuntza berariazkoa behar da: teknikoa eta pedagogikoa.**

**2.-Mintegi batzuetan dagoen ezagutza falta edo eszeptizismoa formakuntza egoki batekin apurtu beharra dago.**